

ERREPORTAJEA GREBA OROKORRA SINDIKATUEN HITZETAN GEHIGARRIA KILIBARREN
KIROLA PILAR ARRIO IGARREN ESPAINIAKO MENDI MARATOI TXAPELKETAN

Barren

ASTEKARIA

ELGOIBARRO ASTEKARIA · 2002eko ekainaren 21a/VIII. urtea/410. zia



Udako bainua Karakateko maa

ihWitiii.(it

I ff

111pliwillitlyMNA

ggivi
glifi
t\m



EGA AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTARO BEREZIA

Uztailaren 1 etik 24ra.
5 ordu goizean

EUSKALDUNTZE MAILA GUZTIAK

Uztailaren 1etik 24ra.
5 ordu goizean

Prezioa: 99,16 euro
Ikaste langabetuentzako prezioa: 49,58 euro

Matrikulaldia
ekaianaren 10etik 26ra

11114:1401-UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

IDA

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK
CURSOS DE EUSKERA EN VERANO

EU:

- Itegieta • Arrasals • Azpilia • Beasal • Bergart • Deba • Irujo • Irujo
- Errolea • Eslariatzi • Ibersai • Hadarnia • Ira • Lisarte-Oria • 12gazu
- Idria • Pasak • Idesa • Ithretu-baartaga Iaratz

ELGOIBAR

NAFARROA INPARANTIA, 2
Tel.: 943 74 27 31
elKeleusitahoudal.gipark0a.ne1

DEBA

IFAR-KALEA, 12
Tel.: 943 19 22 30
eusikaltei@deba.net

TXIIIIRUKA IINIEPTIEN ETORBIDEA, 5
Tel.: 943 60 30 94
eusk.muIriku@udal.gIpuzkoa.net

ZEZEN-BIDE AUTO ESKOLA

San Frantzisko, 43 -1. solairua

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

ordutegi berria

1 0:00etatik-1 2:30era
1 5:00etatik-20:30era

43

Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 455 • 20600 EIBAR



Kontuan hartu

Protestak, kexak, erreibindikazioak, haserre-erakustaldiak... eguneroko ogia dira etxean, lanean, lagunartean edota jendaurrean. Azken egunotan pisuzko protestaldiak izan dira notizia. Grebaren astea izan da bukatzeaz dagoena. Lanuztea ia erabatekoa izan da. Arrakastatsua? Arrakastaz hitz egiteko emaitzetaz berba egin beharko genuke. Madrilgo agintariek hartuko al dute kontuan herritarrek grebarekin adierazitakoa? Hala beharko luke, bai, baina... hor dago gakoa.

Joan den Iarunbatean milaka eta milaka herritarrek bete zituzten Bilboko kaleak. Ideiak ezin direla legez kanpo utzi egin zuten aldarri isilean. Kontuan hartuko al dute hartu beharko luketenenk?


Pasa den igandean, berriz, Frantziako **haut**teskundeetan gehiengoia lortu zuen eskuinak. Jendeak bere botoarekin egindako keinua kontuan hartuko al du ezkerrek? Eta Iparraldean, zer? Abertzaleek ere badute zer kontuan hartu.

Azken egunotako kontuak besterik ez dira. Edonoiz eta edonon gertatzen dira kontuan hartu beharreko gauzak, baina ez ditugu entzuten ez ikusten. Eguneroko bizimoduan eta harremanetan ere bestela moldatuko ginateke batzuk eta besteok gauza asko kontuan hartuko bagenitu.

Begiak, belarriak eta ahoa tapatzen dituen tximinoaren irudia datorkit burura.

Erremediorik ba al du honek? Baietz pentsatu nahiko nuke. Zenbait gauza kontuan hartuta, ez genuke itzaropenik galdu behar.

Montse Arregi



2 greba?

Jadanik galdua dut ikuspegia. Zuek Ierro hauek irakurtzen dituzenerako greba egunen oihartzuna izango dugu normaltasunera erabat itzulita. Greba egunak, diot, pluralaz, halako orijinalak baikara edo halako beharrak ikusten baititugu.

Ez dakizkit zehatz greba aurrera eramateko arrazoiak. Madrilgo gobernuak aurrera eraman nahi duen Lan Erreformaren Dekretuaren aurkako mugimendu bat omen da. Argudio sendoak izango dituzte konbokatzaileek, egunotan irakurri dudanez, guztiak, erreinuko hiriburuan boterean dagoen partidukoak ezik, kontra baitaude.

Are zirriborroatuago ditut gure esparruan deialdia egin den grebaren arrazoiak. Oinarrian berberak dira; Lan Erreformak eskaintzen duen kontzertu ereduaren aurkako greba da. Goaz haratago: era berean estatu espainoleko sindikatuek eskaintzen duten ereduaren kontrakoa ere bada. Ezberdintasun bat markatu beharra, beraz. Eman dezagun pauso bat gehiago: Euskal Herriko bi sindikatu abertzale nagusienek txikikerietara joanez gero baliteke arrazoi ezberdinak aurkitzea; hortaz, zoramenaren zoramenean, zergatik ez beste greba egun bat, nork berea konbokatuz?

Bitartean, Eusko jaurlaritza protesten iturri balitz bezalako jokabidea hartuta ibili behar Lan Erreformaren Dekretuaren kontra agertu arren; eta dendariak beldurraren beIdurrez bi egunez itxi behar. Nori dagokio horren galeren ardura? Hau ez dago ulertzerik. Gero eta guttiago gainera.

Gotzon Arrieta

Cr)

7\ -
0

O

N

kexak	5
motz MotZ	8
gehiga rria	11
kiR01 Ak	16
aGenda	∞

Urruzunoren begi ezkutua Iazko uda

KULTURA BIZIA, ANITZA ETA SORTZAILEA

Hizkuntza, komunikatzeko moduak, portaerak, musika, dantza, antzerkia, zinea, ohiturak, jaiak e.a., hauek guztiak dira kultura. Herri bakoitzak omen du berea. Eta kultura hori egunero gauzatzen eta aldatzen doan corpus erraldoia da, gizakiak eta giza taldeak direlako protagonista eta egile. Ondorioz, kultura anitza, bizia eta zabala da, guztiok parte hartu dezakegulako kultura deitu dugun horretan; gutako edozein sortzaile izan daitekeelako.

Aniztasun hori dela-eta, kultura ezin da boterearen esanetara egon, ezin da boteretik zuzendu kulturak ez diolako proiektu politiko bati erantzuten, ez dituelako alderdi baten postulatuak jarraitzen.

Baina, politikariek bestelako ikuspegia dute, Kulturari errentabilitate politikoa atera nahi diote eta ondorioz, espektakulua eta kultura kontsumitzailea nagusitzen ari zaizkigu instituzioek bultzatuta, kultura sortzailearen kalterako.

Hori bera da Elgoibarko udaletxeko kultura batzordearen lehendakariaren jarrera. Ez du ikusten arestian aipatu dugun aniztasun hori eta kultura mota zehatz bat soilik bultzatzen du, instituzioetatik zuzendu daitekeena, beraien gustuko kultura, alegia (klientelismo eta amigismoaren "kultura" sortuz), hau da, elkarte baten egun bakarreko jarduerarako 3 milioi pezetako gastua onartzen den bilera berean ez du kolektibo batzuen desalajoa baimentzeko lotsarik.

Boteredunek ordezkari politikoak direla ahaztu dutela dirudi, zuzendari politiko bihurtuz eta horrek ematen omen die boterea haien kultura kontsideratzen dutena bultzatzeko eta beste guztia baztertzeko.

Herriaren zerbitzura daudela ahaztu dute eta herria haien zerbitzura dagoela pentsatzera iritsi dira.

Batzorde honetako lehendakariak ez du udaletxe eta kultur eragileen arteko zubirik eraiki nahi, are gehiago batzordeko lehendakariaren ustez, udaletxeak bultzatu eta finantziatutakoa soilik da kultura. Bestelako kultur eragile eta sortzaileek egiten dutena ez da kultura berarentzat eta ez du laguntzarik inerezi. Kultur taldeen bizitza eta jarduera mantentzea baino hauen desagerpena bilatzen duela dirudi: lokalik ez, diru laguntzarik ez edo oso urriak, elkarlanik ez. Eta beraz, "aIternatiboa" den guztia botereak ukatu egiten du, balio kulturalik ez dio ikusten eta desagertuko balitz, hobe.

Oker dabilta agentariak bide horretan. Zerbitzu publikora kulturaren zerbitzura egon behar dute eta horretarako kultur sortzaileen bila abiatu eta haienganako zubiak eraiki.

Izaskun Arozena
NAN 15.381.622

Batasunako kultura zinegotzia



2001eko abuztuak 6 Alemanian: 34 gradu itzaletan. Egin beharreko mugimenduak hausnartu eta ekonomizatu behar diren egun horietako bat da. Tranbia hartu dut katedraleraino joateko; oinez gerturatzea ez litzaidaike zilegi bidean urtu eta ttantaka heldu gabe. Tranbiak labea dirudi, zer ote dirudigu bertan bidaiatzen dugunok? Udako egun sargori bateko Debarako trena gogoratu zait, harik eta geltokira iritsi, eta jainkoak Europa iparraldeko hiri santu honetan hondartzarik paratu ez zuela ohartu naizen arte. Eta une horretan, inbidia pittin bat sentitu dut sardina moduan ito beharrean trenean Debara doazenengatik. Zenbait gauzen balioa falta zaizkigun arte baino ez omen dugu antzematen. Egia biribila da hori, Ondo pasa hondartzan!

Unai Villena

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

t 943 74 41 12

Publizitatea:

xr 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila:

barren@topagunea.com

Helbitie informatikoa:

www.topagunea.com/barren

ARGITARATZAREA

Elgoibarko Izarra

LAGITZAILA Elgoibadn Udala KOORDINATULEA: Ainhoa

Andonegi Zuzekomak: Asier Orbea KAZETANUT: Irat

Agirrezaldegi PUBLIETATEA Amaia Eddzia MAKETATZAILA

Iker Diego RDRINISTRAZIDA Amaia Roddigez GERENTITIA Jon

Peli Uriguen KOLABOATZAILAK Jasone Osoro, Ainhoa

Lodosa, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M.

Eluslondo, Alberto Ansuategi. Edurne Bilbao, Golzon

Aniela, Iocsa Perez de Albeniz, Jokin Matnez, Montse

Arregi, Juanito Gorostiza,

Ainhoa Andonegi, Kokoe eta Urruzunon LT.. AZALEKO

ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburitik INPRIMATEGIA

Gedu Koop. E. TIRADA 4.025 ale LEGE GORDAILUA

SS-1.035/92 ISSN 1139-1855

g ELGOIBARKO . IZARIA

Elgoibarko Ltdafak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



rigx kutxa

1DANOBAT
I[0]11.1.5 HER[0]11.1.11.11

fINGOITI
GRUPO DAN011,17

4 gATARTA



-4i • Emakume batek **Artetxen txakur kaka mordoa pilatzen dela** adierazi digu. "Aintzinako probatokiko zelaia zeharo kakaz beteta egoten da. Umeen jolastokia eta adinekoen atsedean lekua dela kontuan izanik, txakur jabeek ganora gehiago izan beharko lukete, eta gutxi batzuek egiten duten moduan, txakurraren kaka jaso", esan digu andreak.

• **Urasandirako bidean barandilak ustelduta daudela** esan digute. "Zati batzuk konpontzen saiatu dira, baina gauzak ezin dira horrela egin. Egunen baten ezbehar handi bat gertatuko da, eta lehen bailehen konpontzea espero dugu".



• "Pilar ikastetxearen beheko aldean sasiak daude eta baloia erortzen zaigunean ezin iz-en dugu jaso", esan digute ikastetxeke neska mutil batzuk.

• Bi mutil etorri zaizkigu **Elgoibarren patinekin ibiltzeko lekurik ez dagoela** esanez. Jendea kalean kexatu egiten omen da, beraz, patinetan ibiltzeko leku bat egitea eskatzen dute.


171115111

BARRENen OHARRA:
 Ordenadoreekin izan ditugun arazo teknikoak direla-eta, aste honetako alean letra tipo batzu aldatuta ikusiko dituzue.

• Guraso talde batek **DBH 3. mailako guraso eta batez ere, ikasleak** txalotu nahi dituzte, Ikastolaren egunean egindako festa eta antolamendua ezin hobekak izan zirelako.

• Guraso talde batek **Josu Mujika** euren seme-alabei **dantza erakusteko egiten ari den ahalegina** eskertu nahi du, eta lehengo astean emandako dantza jaialdiarengatik zorionak eman nahi dizkiote.

Barreak, Birrak eta Barreak



rijoSERVA AP-MIAP-MAK
 fnkSI ZUEN
 AZKEN FUDIA


KOKOE 2002 #166

lerreportajea

Greba orokorra lan

Langabezia murrizteko erreformaren aurkako Greba egin zen ekainaren 19an eta 20an Euskal Herrian. Greba egiteko zeuden arrazoi edo zergaitien blicia Elgoibarren ordezkaritza duten sindikatuengana (1A13, UGT, CC.00 eta

EL4) jo dugu. Horrez gain, grebak izan zuen erantzuna eta beraien balorazioa jakin nahi izan dugu. Deialdia bi egun desberdinetan egin zen, eta horren inguruak bakotzak zeukan iritzia ere azaldu digute.



LAB

Sabino Zenarruzabeitia LABeko arduraduna Elgoibarren

"ERANTZUN ONA IZAN DU GREBAK ELGOIBARREN"

Greba egiteko arrazoiak:


Azken 10 urteotan zortzi dekretu atera dira, eta azken honek langabezia dagoen jendeari neurri gogorrak ezartzen dizkio, enpresariaren onurarako. Langabezia dagoen jende guztiaren %60ak ez du dirurik kobratzen. Neoliberalismoaren eraginez, Espainian laguntza sozialak gutxituz doaz. Erreforma honekin, bestalde, kaleratzea merkeagotzen da eta prekarietatea handitu, kaltetu nagusienak emakume eta gazteak izanik. 52 urtetik gorako langabetuek, 55.000 pezetatiko dirulaguntza jasotzen dute, baina erreforma berri honen arabera, lanean hasten bada bere soldatetik diru hori kendu egin behar zaio.

Zergatik egin zenuten greba 19an?

Espainia mailan UGT eta CCOO nagusi izanik Gobernuarekin sinatu dituzten pakto guztiak ez dira izan Euskal Herriko langileen onurarako. Prekarietatea handitu eta kaleratze libre bat bideratu dute. Euskal Herrian LAB eta ELA nagusi direnez, ez genuen ondo ikusten beraiekin elkartzeari, nahasketa bat sortuko litzatekeelako. Espainiatik bereizteko jarri genuen beste egun bat, gure egoera berezia delako. Langileen formaziorako Hobetuz proiektuak jaso behar duen dirua Madrilen biokeatuta daukate, beraz, ez genuen bidezkoa ikusi beraiekin greba egitea.

Zein erantzun izan zuen grebak Elgoibarren?

Goizean enpresetanlangileen %70ak egin zuen greba. Sektore honetan, Elgoibarko enpresa garrantzitsuenetarikoak greba egin zuten, Danobat eta Ideko esate baterako. Komertzioetan eragin gutxi izan zuen grebak goizez, baina aipatzekoa da, Eroski eta Netto bezalako denda handiak itxita egon zirela. Mezuak erantzun zabala izan zuen Elgoibarren, eta balorazio positiboa egiten dugu.



UGT

Roberto Aizpurua Debabarreneko UGTko arduraduna

"EKAINAREN 20TIK AURRERA ERE LANEAN JARRAITU BEHARKO DUGU"

Greba egiteko arrazoiak:

Gobernu honek eman ditu dagoeneko greba egiteko hainbat arrazoi. Lan merkatuko erreformak, pentsioen gutxitzea, langabeziaren inguruan harturiko erabakiak (langileen kaleratzea erraztu eta merkeagotzen du), eta hori guztia ezin daiteke onartu. Gobernu honek langabezia eta lana sortzearen inguruan daukan ideia ez da langileentzako egokiena, eta honek horrela jarraitzen badu, Ongizate Estatua oso egoera larrian geldituko litzateke.

Lortuko al da soluziorik greba honekin?

Hau ez da ekainaren 20an amaituko, baina zerbaitetarako balioko duelakoan gaude, bestela ez genuke egingo. Aurrerantzean ere mobilizazio gehiago egin beharko ditugu, Gobernu honek erakutsi baitu negoziatziorako asmorik ez daukala. Gobernuak guri leporatzen digu ez dugula negoziatu nahi, baina beraiek dira negoziatzioa bideratzen ez dutenak. Gure politika negoziatzioan oinarritzen da. ELA eta LAB sindikatuek askotan leporatu digute Gobernuaren aurrean amore ematen dugula, baina hori ez da egia.

Zer iruditzen zaizue Euskal Herrian grebarako bi deialdi egitea?

Oso gaizki iruditzen zaigu. Kasu honetan greba egiteko arrazoiak berdinak dira, beraz, denok batera egin beharko genukeela uste dut. 35 orduko lan astea lortzeko greba deitu zutenean ELA eta LABek, gu ados geunden eta beraiekin egin genuen greba. Oraingoan beraiek berdin egin beharko luketela uste dut. Ez guregatik, langileengatik baizik, beraiek izango baitira kaltetuak. Erabaki honek banaketa handia sortu du, eta banaketa euren aldetik etorri da. Izan ere, ekainaren 20ko greba lehenagotik konbokatuta zegoen.

erreportajea

erreformaren kontra

ELA


Moises Aranzeta Debabarrenako ELA sindikatuko arduraduna.

"EUSKAL HERRIKO LANGILEOK EZ DUGU GREBA EGIN CC.00. ETA UGTri TXEKE ZURIA EMATEKO"

-Zein izan ziren ELAk greba orokorrerako deialdia egitera bultzatzeko arrazoi nagusiak?

PPren azken dekretazoaren aurkako neurri bat izan da Ekainaren 19ko greba orokorra. Bost arrazoi nagusi aipatuko nituzke greba egiteko:

1. Langabetuak iruzurgiletzat hartzen dituen Aznarren erreformari aurre egitea.
2. Tramitazio soldaten desagerpena eta kaleratzearen merketzea salatzea.
3. Ez dugu onartzen edozein lan eskaintza "lanpostu egokia" denik.
4. Gehien dutenei zergak jaitsi eta langabezian dauden pertsonekin aurrezten duen politika salatzea (langabetuen %60.prestaziorik gabe, PERaren desagerpena, aldikako langile finko ez jarraiak, kaleratzeagatik ordaintzen diren kalteordainen zenbaketa...).
5. Euskal Herriarentzat enplegu eta babes sistema propioa exijitzea.



-Zergatik egon dira bi greba deialdi, bata 19an eta bestea 20an? Gure aldetik, Euskal Herriko langileok ez dugu greba egin CC.00. eta UGTri txeke zuria emateko. CC.00.ek eta UGTri azken urteotan egin duten sindikalismoa hau da: Itunez itun langileen eskubideak eta gizarte-babesa muniztuz joan dira. Ez dugu greba egin UGT eta CC.00. Aznarrekin berriro konpon daitezzen. Ez dugu greba egin gizarte babes murrizten erreformak berriro sina ditzaten, kaleratzea merkeagoa izan dadin eta lan malgutasuna handiagoa izan dadin. Gainera, ez dugu nahi langabezia sistema eta negozioazio kolektiboa gehiago zentraliza ditzaten, ezta soldaten murrizketa berriro hitzartu dezaten ere.



euskadiko langile botnisiok

"GOBERNUAK ERREFORMA ALBORATU ETA NEGOZIOAZIOA ZABALDU BEHAR DU"

-Zein dira maiatzaren 20an greba egiteko arrazoiak?

PPren gobernuak hainbat neurri aprobatu nahi ditu langabezia prestazio sistema aldatzeko. Honek langileen eskubideen murrizketa suposatzen du, bai gaur egun lana daukatenez, baita langabezian dudenentzat ere. CC.00.ek eta UGTri neurri hauek eraso larri bat direla uste dugu. Zentzugabeak eta onartezinak dira. Gobernuak erreforma alboratu eta negozioazioa zabaldu behar duela iruditzen zaigu, kalitatezko lan beteaz lortzeko eta langabezia prestazioen babesa handitzeko.

-Gobernuak hartu dituen neurrietatik zeinekin ez zaudete ados?

Langileen kaleratzea errazagoa eta merkeagoa izango da. Kaleratzea justifikatuta ez egon arren, enpresariak ez daude tramitazio soldatak ordaintzera derrigortuta. Horrela, legeak boteretsuen alde egiten du langileei kenduz. Enpresek 48 milioi euro (80.000 milioi pezeta) aurreztuko dituzte urteko, tramitazio soldatak ez ordaintzearen ondorioz. Langabezia prestazioak murrizten dira eta sarbidea mugatu egiten da. Prestazioak jasotzeko denbora murrizten da. Aldizkako kontratu finkoak dauzkaten langileek ere langabezia prestazioen eskubideak galduko dituzte. Andaluzia eta Extremaduran nekazarlan arloan lan egiten duten behin-behineko langileen laguntzak desagertzen dira eta azkenik, errentaren birbanaketa ez da bidezkoena.

972 euro batu dira Elgoibarren Kontseiluaren kanpainan

• azko neguan Euskara **I**Gizarteratzeko Kontseiluak "Azken pezetak eta lehen euroak euskararen alde" kanpaina jarri zuen martxan. Emaizta ekonomikoak jakitera eman dituzte eta Elgoibarren 972 euro (161.000 pezeta) jaso da. Kanpainaren helburua Kontseiluaren egitasmoak finantzatzeko dirua batzea zen eta diru bilketa Euskal Herriko herri guztietan egin zen. Elgoibarren Udal Euskaltegiak, AEK euskaltegiak, Ikastolak, Herri Eskolak, Elgoibarko Institutuak eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak hartu zuten kanpaina gauzatzeko aukera. Erakunde guztiek eskerrak eman nahi dizkiete diruz lagundu duten guztiei.

Albitxuriko industrialdea 2003. urtean amaitzea espero dute

Oraingoz Elgoibarko hiru enpresak eraiki dituzte pabiloiak bertan

Albitxuriko industrialdeko lanak aurrera doazela gauza jakina da. 2002ko otsailean urbanizazio lanak amaitu

zituzten eta gaur egun

Elgoibarko **hiru** enpresak **eraiki** dituzte beraien pabiloiak: Etxetar Spool System eta Teknikalde Iparlaser enpresek, hain zuzen ere. Urruzuno bailararen azpiko aldean dagoen industrialde berriak 190.820 m²-ko hedadura du guztira, baina kontuan hartu behar da gehienez 16.170 m² aprobetxatu daitezkeela eraikuntzarako.

Hiru enpresa horiek lekua hartu dute eta Elgoibarko beste lantegi batzuk ere pabiloiak eraikitzeaz daude. Hala nola Agme, Cometel System, Egondo eta Kalman. Eraikita dauden

pabiloiek eta aurki egingo dituztenek 31.375 m²-beteko dituzte denera. Hauetaz gain, beste partzela batzuk urbanizatuta daude 16.500m²,

hain zuzen ere, eta jadanik hainbat enpresari saldu dizkietenez 2003 urtean zehar eraikitzea espero dute.

Enpresa txikiak **Bestalde, Industrialdea** Elkarteak irailean hasiko ditu beste bi pabiloi eraikitzeako lanak eta 14.500 m²-horietan enpresa-

txkiek izango dute lekua, eta salmenta moduloka egingo da, gutxienez 350 m²-ko modulotan. Pabiloi hauek ere 2003 urte amaierarako amaituko dituzte. Enpresen aldetik eskari handia dago modulo hauek eskuratzeko.



Guztira 190.820 m²-ko hedadura du Albitxuriko Industrialde berriak.



Urruzuno bailarako jaiak eta San Migeldarren eguna ospatu dituzte asteburuan

Joan den zapatuan, hilaren 15ean, Urruzuno bailarako bizilagunek auzoko jaiak ospatu zituzten. Mezaren ondoren Juliana Zubizarretaren eta Katalotzaren trikiti doinuek txapligo zaratarekin bat egin zuten. Auzotarren pintxoak jateko aukera izan zuten eta txikienek baita itxulapikoak apurtzen jolasteko modua ere.

Bestalde, domekan Aiastiako (San Migelgo) auzotarrek beraien eguna ospatu zuten. Meza ostean, salda eta txorizoa janean auzotarren arteko pilota partiduak ikusteko aukera izan zuten. Bazkaritara elkartu ziren denak eta bazkalostea Gardokiren doinuekin batera, omenaldia egin zieten alkate ohiei: Agustin Gurrutxaga, Rafael Arrizabalaga. Agustin Ansola eta Maria Pilar Aranzabal.

Fundizioko musika taldeak berriz bueltatuko dira bertara



Joan den maiatzaren amaieran Madalako Fundiziotik kaleratu zituzten bertan entsaiatzen zuten musika taldeak. Baina 15 egunen ondoren, berriz itzultzeko baimena eman die Udalak. Bertan rotonda bat egiteko asmoa dago eta horretarako fundizioa bota behar dute, baina itxuraz lanak atzeratu egingo dira. Beraz, tresna eta aparato guztiak fundiziora bueltatu ahal izango dira musika taideetako partaideak.

Ohorezko matrikula eskuratu dute Elgoibarko Institutuko 7 ikaslek

Elgoibarko Institutuko batxilergoko 7 ikaslek ohorezko matrikula jaso dute. Batxilergo Humanistikoa amaitu dute hiruk eta zientifiko teknikoak gainontzeko laurek. Argazkian agertzen dira zazpi ikasle saiatuak: Amaia Polo, Amaia Madariaga, Yolanda Munin, Ane Palomino, Unai Segundo, Sara Laskurain eta Maite Uriarte. Batxilergoko ikasketak amaitu, sektibitateko azterketa egin eta emaitzen zai dauden bitartean Holandara joango bidaian.



Elgoibartar bat atxilotu dute narkotrafiko sare bateko partaide delakoan

Joan den astezken gauean Elgoibarren drogen-aurkako operazio bat egin ostean, elgoibartar bat eta bi kolonbiar atxilotu zituen ertzainak ustez narkotrafiko sare bateko partaide direlakoan. A.V.E. 31 urteko elgoibartarra herrian bertan atxilotu zuten eta kolonhiarrak, berriz, autopistako Iurretako peajejan. Ustez Debararenean eta inguruetan substantzia estupefazianteak zabaltzeaz arduratzen zen sare hau. Operazio honetan ertzaintzak kokaina kiIlogratno bat, 3.700 extasi pastila, substantzia estupefaziante berri baten kno erdi, 42.000 euro dirutan eta droga manipulatzeko materiala aurkitu zituen. Baita .armak eta ordenagailu bidez dirua faltsutzeko ahaleginetan ari ziren probak ere. Atxilotuak polizia operazioaren ondoren epailearen esku jarri dituzte.

Lasaitze

Estetizista behar da

Osteopatia

Kiromasajea

Kirol Lesioak

-Tendinitisa

-Esginzeak...

Lunbago eta ziatika

Drenaje linfatikoa

Solariun bertikala

Golane Elorza

Kilimon etorbidea, 3
Tel.: 943 75 51 94
Mendaro • Gipuzkoa




IY 4440.1144 c.S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62

Indalezio Ojanguren 2, behea 020600 **EIBAR**

Hartu zenuen parte greba orokorrean?



ANA MATEO
30 urte, operadorea

Greba orokorra egitea ondo iruditzen zait, lagabetuentzat batez ere. Kontratu definitu gabea daukagunok edozein momentutan egon gaitezke kalean, eta hori ez da bidezkoa. Espero dugu zerbaitetarako balio izatea grebak.

PATXI SANTAREN
29 urte, almazeneroa

Grebarekin ados nago, baina bi deialdi desberdin egitearen kontua oso gaizki iruditzen zait. Denok batera indar gehiago egingo dugu, eta langileen eskubideengatik ere banatzen hasten bagara, ez dugu ezer lortuko.



IÑAKI ZUBIAURRE
48 urte, teknikaria

Lan bidaia baten ondorioz ez nuen greba egin, baina ados nago planteamenduekin. Euskal Herrian bi deialdi egitea ez dut oso ondo ikusten. Batasunean greba egitea hobe litzateke.

MARIA PEREZ
47 urte, idazkaria

Neurri oso gogorrek hartu dituzte langileen eskubideen inguruan, eta greba egitearekin ados nago. Denok batera eragin handiagoa izango genukeela uste dut, eta kasu honetan greba egiteko arrazoiak berdinak dira.



JOSE ANTONIO MARTIN
44 urte, torneroa

Ados nago Greba Orokorrarekin. Euskal Herrian bi deialdi egotea ez zait ondo iruditzen. Nik 20an egin nuen greba, baina lau sindikatu nagusi egonik, denok batera egin beharko genuke.

AMAIA EZENARRO
40 urte, irakaslea

Momentu honetan ez nago lanean, baina bestela egingo nuke. Euskal Herrian bi deialdi egotea nahiko bitxia da. Indarrak banatu egiten dira, eta hobe izango litzateke adostasun batera heltzea.



**IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA**

epviu autamm afte, tleta teouioa **16 lottetelept**

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A
Tel: 943 74 10 11



BaRRen

Triska Elkarteak dantzaldia eskaini zuen ekainaren 15ean

Elgoibar, Mendaro eta Debako dantzariak osatzen dute Triska Dantza Elkartea

Jende ugari bildu zen Goñati frontoan Triska Dantza Elkartearen emanaldia ikusteko. Mendaroko txikiek eman zioten hasiera jaialdiari. Joku antzeko dantza bat egin zu-



ten, eta bertara hurbildu zen jendeak izugarri gozatu zuen. Josu Mujika da Triska Elkartearen zuzendaria, eta berak prestatu ditu koreografia guztiak. Programazio zabala

prestatu zuen. Adin desberdinetako taldeek hartu zuten parte, bakoitzak dantza mota bat eskainiz. Elgoibar, Mendaro eta Debako dantzariak osatzen dute Triska Elkartea. Aurten go kurtsoan sortu da Debabarreneko dantza eskolak bateratzeko asmoz, eta datorren urtean Eibarrera iristea espero dute.

Abadetxe zaharra bota dute etxeak egiteko

zpilgoetako elizaren boan zegoen abadetxea bota zuten pasa den asteartean. Gazte asanbladako kideek bertan zuten egoitza, eta orain bilerak egiteko lokalik gabe gelditu dira. Otsaila aldera esan zieten edifizio hori bota egingo zutela, beraz, bertan sartzea erabaki zuten bota artean behintzat. Gaz-



te asanbladakoek onartzen dute ez zirela biderik egokienean sartu abadetxean, baina apaizarekin hitz egin ostean, ez dute arazorik eduki. Aurretik bizkotxeria zaharra okupatu zuten, baina bota egin zituzten

bertatik. Lokal horretan ez dute oraindik ezer egin, baina badi-rudi etorkizunean zaharrazako eguneko zentru bat egiteko asmoa dagoela. Gazte asanblada eta Udalaren arteko harremanak ez dira egokiak, eta badi-rudi akordio batera iristea ez dela erraza izango. Gazte asanbladakoak hasi dira lokal berri baten bila. Mojen eskola izandako aukeratu dute, baina ez dakite noiz arte egon ahal izango diren bertan.

In leikek piropo lehiaketa antolatu du

Uztailaren letik 17ra euskarazko piropo lehiaketa antolatu du In Leikeko euskara taldeak. Bi kategoria bereiztuko dira: umeak eta nagusiak. Tabernetan kaxak jarriko dira, eta jendeak bertan utzi beharko ditu bere piropoak. Santana jaietan pegatinak aterako dira piropo irabazleekin.

Jaietako kartel lehiaketa martxan

Mendaroko Udala Santana jaiak antolatzen hasi da, eta kartel lehiaketa martxan da dagoeneko. Lehiaketan parte hartzeko ondorengo baldintzak bete behar dira: Mendarotarra izatea, kartelaren testuart, DIN A4 formatoan, Santana jaiak 2002ko uztailak 24tik 28ra agertzea eta lana goitizena batekin aurkeztea. Lanak ekainaren 28a baino lehen entregatu behar dira, eta Udaleko arduradunek uztailaren 1ean jakinaraziko dute irabazlearen izena.

Teknologia berrien etengabeko garapena ikusirik, Mendaroko Udalak "Mendaro Interneten" proiektua jarri zuen martxan. Proiektu honek atal desberdinak ditu, eta horietako bat, herri telebista sortzea izango litzateke. Proiektu honek herritar guztiei teknologia berriak ezagutzeko eta bertan parte haritzeko aukera ezinhobea eskaintzen die. Proiektu honek bi urte irungo di-

tu, baina dagoeneko eman ditu bere lehenengo urratsak: alde teknologiko guzlia finkatuta dago, beraz, faha den gauza bakarra jendearengana iristea da. Proiektu honen helburu nagusia, Mendaroko biztanleak teknologia berrien mundura bidartzea da, eta bide batez, sarearen bitartez, Mendaro munduko herri guztietara hedatzea.

Oiane Valenciano, Eli Aizpuru eta Xabi Corcuera dira Mendaro telebistako arduradun eta langileak. Joan zen apiriletik ari dira lanean, baina oraindik ez dira emititzen hasi. Oianek azaldu digun moduan, "seinalea kable bidez igorri ahal izateko, aparailu bat falta da oraindik". Berak esan digunez, onda bidez emititu daiteke dagoeneko, baina mendarotar askok Euskaltel dauka etxean, beraz, seinalea kable bidez jaso behar dute. Oraindik ez dakite noiz egingo duten lehenengo emisioa, baina beraiek lehen bailehen hasi nahi dute: "Euskaltelek aparailu hori jarri bezain laster hastea espero dugu. Euskaltelek hilabeteke epean dena prest egongo dela esan digu, beraz, aldataririk ez badago behintzat, orduan hasiko gara".



Ekipoa

Ekipo aldetik dena prest dago. 4 karnera dituzte, editatzeko bi ekipo, kontrol gela eta platoa. Hala ere, oraindik probak egiten ari direla kontatu digu Elik: "Artxiborako irudiak hartzen ari gara. Hau hutsik zegoen, eta aurrera begira irudiak edukitzea oso garrantzitsua da". Informatiboen grabazioak ere egin dituzte, baina gauza asko hobetu behar dituztela esan digute: "Soinuarekin arazoak ditugu oraindik, aparailu batzuk ez dabilta guztiz ondo, eta emititzen hasten garenean hankasartzerik ez egiteko, okerrak zuzentzen ari gara". Horretan laguntzeko, Goienna Telebistako kideak etortzen dira astean pare bat aldiz: "Beraiek esperientzia gehiago daukate, eta gauzak hobetzen laguntzen digute".



Telebistako programazioari dagokionez ere, ez daukate ezer finkatuta. Elik esan digunez, "informatibo batekin hasteko asmoa daukagu, baina lehenengo Mendaroko herriak zein informazio eskaintzen duen jakin behar dugu". Horretarako Mendaroko biztanle eta erakunde desberdinen kolaborazio eskatzen du Elik: "Askotan ez gara ekitaldiez enteratzen, beraz, zerbait antolatzen dutenean, guregana etorri eta informatzea eskertuko genuke". Mendaro herri txikia da, eta programazio osoa betetzea oso zaila da. Beraiek daukaten asmoa, astean pare bat informatibo egitea da: "Hasteko bi informatibo egiteko asmoa daukagu. Noizbehinka elkarrizketaren bat sartuko dugu, eta hilabetean behin. mahainguru bat antolatzea gustatuko tzaiguke".

"Mendaro Interneten" proiektua burutzeko, EGEF (Eskualdeko Garapenerako Europako Fondoa) eta Eusko Jauritaritzak dirulaguntza garrantzitsua eskaini zuten. Herri txikiak teknologia berrien mundura barneratzea da honen helburua, eta Mendaroko Udalak aukera hori aprobetxatzea erabaki zuen. Udala hasi da dagoeneko bodeokonferentziak egiten, eta Euskaltelek fibra optikoa sartu du herrian. Momentuz gauzak ondo doaz, eta telebistaren proiektua ere, ondo ateratzea espero dute.

ZIT zain Meadau Itller2 ptell



Mireia Zabala

30 urte, etxeoandrea

Ez jata ondo iruditzen. Mendaro herri txikixa da, eta nere ustez hobe izango litzake diru hori beste zerbaitetan gastatzia. Gaztientzako gaztetxe bat itxia hobeto ikusten dot, gaztiak etxian telebista ikusten egotia baino.



Jose Mari Elorza

29 urte, lorezaina

Ez dot ondo ikusten. Ez dot uste ganorazko emisiorik itxeko aukeria ematen dabanik Mendarok. Herri txikixa da, eta ez dao kontatzeko gauza handirik.



Juan Arenillas

58 urte, ospitaleko mantenimendu arduraduna

Ondo iruditzen zait. Mendaro poliki-poliki handitzen ari da, eta bertako telebista martxan jartzea ideia ona dela ustedut.



M° Jose Larrañaga

48 urte, etxeoandrea

Nere ustez badaude bihar gehixao daukaten beste gauza batzuk. Mendaro herri txikixa da, eta telebista batek ez dot uste funtzionauko dabanik. Eskualde osorako telebista izango balitz bai, baina Mendarorako bakarrik ez dot oso ondo ikusten.



Edu Agirre

40 urte, garraiolaria

Oso ondo. Teknologia aldetik behintzat puntako herria da Mendaro. Zaila edukiko dute albisteak eta edukiak betetzen, baina bertako albisteak telebistaz ikustea polita izango da.

Sinet7AtU zaluirui



H

ilabete honetako erretratu zaharra **Nati Irurtiak** laga digu. 1974. urteko azaroaren 30ean ateratako argazkia da, Ospas-Gain futbol zelaia inauguratu zuten eguneko, hain zuzen ere. Munduko Futbol Txapelketa elkarrizketa eta komunikabide guztietako gai nagusia den garai hauetan, ego-kia iruditu zaigu erretratu hau sartzea.


no a ALDATU diren gauzald



1935. urte ingurukoa da hemen daukagun argazkia. Irudi hau gaur egungoaren aldean oso desberdina da. Kanposantuko bidetik aterata dago. Ikusten den bezala, Sigmako lantegia oraindik egin gabe zegoen. Uzta oparora ematen zuten Iur sail ederrak ikusten dira bertan. Lauko baserria, Sartuitxa Jauregia, eta zuhaitz artean Xixilion baserria eta Zubizarreta. Elgoibarko herriaren zati bat ere ikusten da. Elizako kanpandorra ageri zaigu urrutian. Garai hartan ez zegoen hainbeste etxebizitza parean, eta oso ondo ikusten da. Azkenik esan, gaur aldean pinu gutxi zegoela garai hartan.



Gaur egungo argazkia zeharo desberdina da. Denok gogoan daukagun Sigma lantegia ere, ez dago dagoeneko. Garrantzia handiko lantegia izan zen, eta fama handia izan zuen erbestean ere. Gaur egun, erabat aldatuta dago paraje hau. Enpresa desberdina: jarri dituzte, eta jende ugari dabil bertan lanean. Argazkian ikusten den bezala, ezker eta eskuin aldean ere, enpresa asko ageri dira. Elizako kanpandorre ederra, gutxiago ikusten da, izan ere, etxebizitza handi ugari egin dituzte azken urteotan. Ezbairik gabe, asko aldatu da gure herria.



uda hone

PO:J

AEK-n jardun nahi duzu?

**Euskara irakaslea
izateko ikastaroa**

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA
Uztailaren 1etik 24ra (goizez 5 orduz)
Bergarako Akulu AEK Euskalteg an
Matrikula: 250

Izena emateko epea: Ekainaren 1 etik 21 era

Eibarko AEK (943 20 13 79 / eibar@aechnet.net)
Bergarako AEK (943 76 05 18 / bergara@aechnet.net)
Arrasateko AEK (943 77 03 69 / arrasate@aechnet.net)

Elgoibarko aek euskaltegia

æk

Uda honetan ere

- cursos de apoyo para todos los niveles

- EGA

- Irakaskontzako 1 eta 2 perfilak

- HBLEM

Ikasleek eta langabetuek matrikula erdia Udalaren laguntzaz

Izena emateko epea ekainaren 28ra arte

Elgoibarko AEK Plaza Txikia, 3

Tel.: 943 74 13 32

elgoibar @aechnetnet

Alkatearen bainuak inauguratu zituen Mintxetako igerilekuak

Irailean paseo bat eta gerizpe gunea bat egingo dituzte sarrera ondoan



Mintxetako igerilekuak inauguratzeko eguraldi ezinhobea egin zuen pasa den ekainaren 14an, barixakuan. Bero sargoriari aurre egiteko bainu freskagarri bat hartzea baino ezer hobirik ez dagoen egun horietako bat egin zuen. Inaugurazio ekitaldian herriko ikastetxeetako hainbat haur hurbildu ziren Mintxetara Udal Kirol Patronatuaren gonbidapenari erantzunez. Don Benantzio parrokoak bedeinkatu zituen amaitu berri diren instalazioak eta Jon Lizarraldekin ohorezko aureskua dantzatu zuen. Ondoren, Gillermo Garate alkateak, bainu denboraldia inauguratu zuen bigarren urtez jarraian. Mintxetako igerilekuak herri guztiaren ahaleginaren fruitua izan direla azaldu zien gerturatutakoei, "igerilekuak diru iturri propioekin finantzeatzea lortu dugu, beste instituzioen laguntza edo subentziorik gabe. Kostako zaigu Elgoibarren antzerako ezaugarriekin eraikia izan den instalaziorik edukitzea. Beraz, igerilekuak ahal duten gehien aprobeztatzera animatu nahi ditut herritarrak".

Diru kontuak

Orain arte 815.885,84 euro gastatu ditu Udalak igerilekuak eta ingurunea txukuntzen, hau da, berdegunea, haurrentzako kolunpioak, dutxak, argiak, pabirmentua, ureztatze sistema, e.a. Hala eta guztiz ere geratzen da egiteko lanik. Bigarren fasea irailean hasiko da, bainu denboraldia amaitzean. Bertan, sarreratik eskumara dagoen gunea egokituko dute. Paseo txiki bat eta gerizpe gunea jarriko dituzte. 18 milioi pezetako kostua izango dute obrek. Azkenik, aldagelak geratuko dira egiteko. Aldageletan egin beharreko inbertsioaren kostua 380.587 euro (63 milioi pezeta) ingurukoa da.



Igerileku handiak 750 m2 eta 30 metroko diametroa du.

(—IGERILEKUKO ARAUTEGIA

- Igerilekuko aldageletara eta igerilekura bertara ezingo da kale..n erabilitako txankletekin sartu.
- Derrigorrezkoa da bainatu aurretik dutxatzea.
- Igerilekuetan bainu-jantzia, txankletak eta toaila bakarrik erabili ahal izango dira, eta debekaturik dago poltsak, motxilak, erabiltzea.
- Ez da onartuko gainontzeko erabiltzaileei kalte egiteko moduko ekintzarik. Baltsak, baloiak, koltxonetak, bestelako objektu pneumatikoak, aletak, buzeorako betaurrekoak... ez dira onartuko.
- Monitore-sokorrista, igerilekuko arduraduna denez, beti errespetatu beharko da. Igerilekuan nola jardun eta nola jokatu behar den hark esango du

Debekaturik dago

- Kirola egitea, horretarako egokiak ez diren lekuetan. —
- Gainontzeko erabiltzaileen lasaitasuna eragotzi dezaketen ekintzak: zarata ateratzea, abestea, korrika egitea, pilotekin jolastea, mugimendu zaskarrak, e.a..
- Sexu bateko pertsonak, beste sexukoentzat gordetako tokietara sartzea.
- Igerilekurako pasabidean dauden dutxetan xaboia edo xanpua erabiltzea.
- Tirita, esparadraro edo antzerakoak ipinita bainatzea.
- Edozein animalia sartzea.
- Bainuko gunean jatea, edatea, erretzea.
- Zakarrak uztea. Zakarrontziak erabili behar dira.

Pagoaga, Unceta eta Pneumax eskubaloi taideek Gipuzkoako txapelkun izatea lortu dute

Denboraldia amaitutzat eman dute garaipen hauekin

Sanlo Eskubaloi Taldeko 3 taldek Gipuzkoako Kopa Txapelketa irabazi dute. Pagoaga-Elgoibar kadete nesken taldeak Ereintzaren aurka jokatu zuen azken partidua eta 28 eta 8 irabazi ostean, Gipuzkoako txapelkun izatea lortu zuen. Kopako partidua guztiak irabazi ditu eta denboraldi ezinhobeari bukaera aparta eman dio.



Euskadiko Txapelketako txapeldunorde izan zirela gogoratzea komeni da.

Unceta-Elgoibar jubenil nesken taldeak ere Ereintza taldearen aurka jokatu zuen finala, bakoitza bere taldeko txapeldun izan ostean. Finalean 26 eta 19 hartu zituzten mendean errenteriarak. Uncetak ere denboraldi oso ona egin du. Euskadiko Txapelketan 5. postua lortu zuten eta Gipuzkoako txapelketan Euskadikoan gainetik izan zituzten taldeei irabazi diete.

Azkenik, Pneumax-Elgoibar jubenil mutilen taldeak 3 taldeen

arteko finala jokatu zuen Donostian. Zarautz eta Ereintza izan zituzten aurkari elgoibartarrek eta bi partidua irabaztea lortu zuten. Pneumax taldearentzat ere denboraldi ona izan da aurtengoa Euskadiko Txapelketan 5. postua lortu baitzuten.

Garaipen zerrenda luzea Garaipen hauekin 2001-

2002 denboraldiari amaiera eman dio Sanlo Eskubaloi Taldeak. Zazpi talde izan ditu aurten eta emaitza ezinhobeak lortu dituzte. Honako hauek dira emaitzarik azpimarragarrienak: Euskadiko junior mailako txapeldunak, Espainiako junior mailako 4. postua, senior nesketan Euskadiko bigarren A mailako kategorian 5. postua. Jubenil nesketan Euskadiko 2. postua, Espainiako 5. postua eta Gipuzkoako Kopako Txapeldun. Jubenil mutiletan Euskadiko 5. postua eta Gipuzkoako Kopa eta Gipuzkoako Federazio Trofeo txapeldun. Kadete nesken mailan Euskadiko 2. postua eta Gipuzkoako Kopa Txapeldunak.

Pilar Arriolak seigarren egin du Espainiako Mendi Maratoi Txapelketan

Uztailaren 7an Aitzgorriko mendi maratoian hartuko du parte

Pilar Arriola elgoibartarrak Espainiako Mendi Maratoi Txapelketan hartu zuen parte pasan asteburuan Madrilan. 42 kilometro eta 195 metroak Navacerrada mendatearen inguruan prestatutako zirkuitoan egin zituzten 300 parte hartzaileek. Pilar Arriola Euskadiko Mendi Maratoi selekzioarekin joan zen eta 6. postuan amaitu zuen lasterketa 6 ordu eta 36 minutuko denborarekin. Estatu mailako korrikalari onenek parte hartu zutela aipatu digu. Teresa Forn kataluniarra izan zen irabazlea, 5 ordu 57 minutuko denborarekin. Korrikalariak beroa izan zuten arerio



nagusia, "iazko lasterketan 3 gradukin ein gendun antxitxika eta aurten, berriz, 30 gradutan. Munduko mendi maratoirik gogorrena dala esaten dabe

antolatzaileek eta berez gogorra bada, beruakin are gehixao. 5.000 metroko desnibela daka eta 2.000 metrotik gora eitxen da ibilbide gehixena".

Maiatzaren 19an Gorbeiko maratoian hartu zuen parte Pilarrek eta 3. postuan amaitu zuen. Hurrengo, Aitzgorriko maratoia izango da (Zegamatik Aitzgorrira) uztailaren 7an. Zallako maratoiarekin emango zaio amaiera Euskadiko Mendi Maratoi Kopari, uztailaren 21ean. Lasterketa hauetan parte hartu ondoren, Suitza edo Italiako Alpeetan abuztuan korrituko den Munduko Mendi Maratoi Txapelketan parte hartzea gustatuko litzaioko Pilarri.

Op- Ldior Langai

Euskal Lan Zerbitzua 1s 901 222 901

*Debabarreneko aldi baterako enpresa batek arraskatzalle bat behar du. **Erref. 81744/4**

*Debabarreneko enpresa batek seguritate sistemen mantenimendu instalatzailea behar du. **Erref. 80821/4**

*Elgoibarko enpresa batek kutxazaina behar du. **Erref. 82781/4**

*Durangoko enpresa batek irakaslea behar du. **Erref. 83044/3**

*Urola Kostako enpresa batek aerobik irakaslea behar du. **Erref. 82832/1**

◆ Bilboko enpresa batek itsasuntzako tripulazioa behar du. **Erref. 82680/3**

*Durangaldeko aldi baterako enpresa batek elektrizista behar du. **Erref. 82557/3**

*Donostioldeko enpresa batek zuzendari komertziala behar du. **Erref. 82493/1**

• Bilboko enpresa batek GIS programoizalea behar du. **Erref. 82122/3**

Bilboko enpresa batek GIS kontsultorea behar du. **Erref. 82118/3**

Bilbo aldeko enpresa batek ingeniari tekniko aeronautikoa behar du. **Erref. 81935/3**

• Urola kostako enpresa batek ingeniari elektronikoa behar du. **Erref. 81723/4**

Durangaldeko enpresa batek fabrikazio montatzailea behar du. **Erref. 81607/2**

Durangaldeko enpresa batek enkofratzailea behar du. **Erref. 81456/4**

Lea Artisaiko autamozio enpresa botek produkzio arduraduna behar du. **Erref. 81323/2**

Donostialdeko enpresa batek ezinduentzako teknikaria behar du. **Erref. 77901/4**

tana

ESKAERA

• Geriotria, psikogieria etia Alzheimer auxiliarrak, nagusiak eta gaixoak zainduko litzuzke. Ebrean edo ospitalean. **tr 649 17 18 49**

• Mutilak bere burua eskaintzen du uztaileko goizetan lan egiteko. **tr 943 74 44 63 (Andres)**

• Uztailean lan egingo nuke, umeak zaintzen edo klase partikularrak ematen. Esperientzia daukat. **e 676 69 75 36**

ESKAITZA

*Estetizista behar da. **943 75 51 94**

*Kamareroa behar da. **tr 687 05 17 89**

• Esperientziadun kamareroo behar da jaietarako. **v 615 76 14 63**

• Tabernari euskaiduna behar da. **v. 94 620 19 18-94 681 65 58**

• CNC fresadoran lan egiteko pertsona behar da. **615 76 57 77-943 74 43 61**

• Gasolindegian lan egiteko jendea behar da. Asteburueran eta abuztuan astean zehar **er 943 74 02 41**

• Asteburuetarako kamareroa behar da. **v 943 74 01 93**

• Pertsona bat behar da tabernan lan egiteko. Aste barruan arraisalde eta asteburuetan. **71. 943 74 28 97**

• Pertsona bat behar du umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. **1s 876 15 46 00**

• Pintorea behar da esperientzia rekin. **11' 606 43 11 19-606 43 11 20**

OHARRA:

Merkatu txirikako rnezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.

Bestelakoak

• Erloju bat aurkitu nuen maiatzeko azken astean Kiroldegi inguruan. **tr 943 74 32 24**

*Urrezko pultsera bat aurkitu dut ize-na eta febxarekin, Ume batena da. **943 74 18 05**

• Osasun zentroaren eta Eroskiren artean ume zapata zuri bat galciu dut, 17 zenbakia. **s 943 74 30 02**

Garajeak

• Garajea alokatzen dut Santa Ana katean, 50. zenbakian. **tr 943 74 10 68 (21:00etatik aurrera)**

• Garajea salgai Sigman Aitzbizkar baserri aurrean, 2,100 euro. **Tr 943 74 20 72**

Etxebizitzak

◆ Apartamentua alokatzen dut Laredon. Hondartza ondoan.

S 943 79 52 80-656 71 77 45

* Bungalow-a alokatzen dut Santa Pofan abuztuko fehen 15 egunetan. Hondartzako lehenengo ilaran. Guztiz prestaturia. **Tr 943 74 27 02**

* Pisua saltzen dut Arregitorre 1 2an. **s 943 74 38 76**

• Bi pertsona behar dira Bilbon (Sarriko) pisua osatzeko. Egoera onean, merkea eta berogailuarekin, **7/ 943 47 47 842**

*Apariamientua alokatzen da Malagan. Asteka, hamabostaldiak, hila-be-teak edo urte osorako. Hondartzatik 50 metrora. **17 667 82 47 93 647 707 160 Glaria.**

• Sigman pisua salgai. Altzari batzuku ditu. **tr 647 209 766**

* exebizitza salgai Elgoibarren, erdiguneari. **tr 630 15 66 01**

• Ebrebizitza saltzen dut Bosarten. 150 m², 4 logela, garajea eta trasteroaren. **ts- 661 40 35 04**

• Ebre bai salgai Son Frantzisko kalean. **v 943 74 00 37-943 74 22 46**

◆ Apartamentua alokatzen da udarako [Torreviejan. Igerilekuarekin.](#) **tr 943 74 23 63**

• Atikoa saldu edo alokatzen dut Afzolan. **mr 943 74 13 39**

• Apartamentua alokatzen dut abuztuerako Jacan. Bi logela, egongela, sukaldaria eta terraza handia. **tr 658 75 84 58**

• 40m²-ko apartamentua salgai Elgoibarko erdiguneari. Prezio interesgarria. **s 679 99 08 26**

• Pisua salgai Elgaibarko erdiguneari. **tr 653 74 80 37**

Salerosketak

Danobat-A-S-1-800 artezteko makina saltzen dut. Barne eta kanpo. Egoera onean..or **943 76 51 27 646 27 26 97**

• BX bat saltzen dut egoera onean, eta prezio ekonomikoan. **tre 660 43 23 32**

Urmeentzako logela bat eta 3 pertsonentzako sofa bat salfzen dira. Prezio onean, **tr 943 74 27 21**

* Reanuil Scenic 1900 DCI bat saltzen dut 2 urte. Gaman altuena, extrekin. **615 74 80 28**

• Jangela rusiikoa salgai. Prezio interesgarria, ta. **943 74 40 62**

Eskusoinua eta idazmakina elektronikoa salgai. **tr 943 74 25 62**

* **Autorako** Baque asientoa eta arnesak salgai. **Irr 943 74 25 62**

Partikularrak

*Neska euskaldunok bere burua eskainitzen du uztailean LHko klaseak emateko. **a 943 74 33 16 Edurne**

• Kontabilitateklaseak hartuko tuzke. **Tr 943 20 87 45 679 36 40 92 (goizez)**

• Bi neska eskaintzen dira udan DBH 2ra arteko ikasleei klase partikularrak emateko **1s 943 74 41 85**

liztailean Matematika eta Lengoaia-ko klase partikularrak ematen Esperientzia daukai. **tr 943 74 42 06**

• Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. **tr 605 73 95 36**

• Ingeles filologian lizentziatuak Uztailean klase partikularrak emango dituzte. **tr 943 74 50 91 (Eider)**

◆ Ingeleseko klaseak ematen dira Mendaron. **v 943 75 52 09 / 943 74 29 84. Lorea.**

• LH 4, mailako ikasle bati uztailean klase partikularrak emateko pertsona behar da. **sl 943 74 33 37**

* Ithen Hezkuntzako klase partikularrak emango dituzte uztailean. Talde txikiak. **-rr 943 74 20 94 (Yolanda)**

*Zorionak Nahia eta Anderri, hila-
ren 19an urteak bete zituztelako. 5.
mailako eta bereziki Danel, Aitor
Konde eta Josuren partez.



• Zorionak **Jani**, bere lehen urte-
betetzean. Familiako eta berezi-
ki Oihaneren partez.



• Zorionak **Lopi**, bere lagun Josu,
Solas, Lohitzune eta Luciaren par-
tez.



Zorionak **Sarari**, ekainaren
23an 4 urte beleko dituelako. Gu-
rasoen eta ahizpa Mariaren par-
tez.



♦ Zorionak **Gorka Gonzalez**,
ekainaren 22an 3 urte beteko di-
tuelako. Gurasoen eta bereziki
anaia Ikeren partez.



♦ Zorionak **Iker**, 12 urte. Familia-
koen eta bereziki Julenen partez.



Zorionak **Tamarari eta Arkaizti**, ekainaren 17an eta
22an 14 eta 13. urtebetetze eguna dutelako. Familiako
eta Oscar, Conchl eta Lute zuen lagun partez.



o Zorionak **Nahia Abadi eta Unai Cabori**, ekainaren
19an eta 22an urtebetetze eguna dutelako. Muxu handi
bana familiako partez.



*Zorionak **Unai eta Jon**, gure etxeko Kapeldunak, zuen
4. eta 5. urtebetetzean. Muxu handi bat familiako partez.



BEKAK

Barne-merkataritza

Eusko Jaurilaritzak Barne-merkataritzako aholkulari
teknikoak prestatzeko 25 bekaren deialdia egin
du. **Epea: ekainak 28**

Graduatu ondoko ikasketak Estatu Batuetan

La Caixa Estatu latuetara unibertsitateetan edo
hezkuntza zentruetan graduatu ondoko ikasketak
egiteko 50 beka eskaini ditu 2003-2004 ikasturte-
rako. **Epea: ekainak 28.**

JARDUERAK

Hitzaldia

Ana Ureta, historia irakaslea, militante feminista
eta lesbiana: "El lesbianismo en la historia de Oc-
cidente". Ekainak 27, 19:30ean, Ernest Lluch Gi-
zarte Etxean (Donostia)

Manifestazioa

Gay, lesbiana, bisexual eta transexualen eskubide-
en alde. Ekainak 28, 20:00etan. Irteera: Bilbon,
Zabalburu Plazan. Donostian, Boulevard-etik.

Zinea

Ekainean ostegunero Arrasaten "Amaia Antzo-
kian" gaueko 21:30ean gay eta lesbianen inguru-
ko zinea, laburmetrai bat eta luzemetrai bat. Ekai-
nak 27: Laburmetraia: "Un matrimonio bien aveni-
do". luzemetraia: "Trick"

Greenpeateren V. Uda-kanpamentuak

Kanpamentuan Ingurumen Hezkuntzako jarduera
desberdinak egingo dira. Kanpamentua Valentzia-
ko probintzian izango da, aterpefke ekologiko eta
bioklimatiko batean. Uztailearen 10era eta uz-
tailaren 1etik 20ra (9tik 13 urtera arte) eta uztaile-
aren 21etik 30era (14tik 17 urtera arte).

Izena emateko azken eguna ekainak 30.

IKASTAROAK

Irrati ikastaroa

Otxoki Irrati Tailerrak 11 urtetik 15 urtera bitarteko
adina duten gazteentzat Irrati-ikastaroa antolatu
du udarako. **Epea: ekainak 30**

LANA

Delineantea

Eibarko Udolak Delineante lanpostu bat betetzeko
oposizio-lehiaketa antolatu du. LHilko titulazioa
edo balioidea eta euskarako 2. Hizkuntza Eskaki-
zuna beharrezkoak dira. **Epea: ekainak 26**

Bideen ingeniaria

Estatuko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarlen Ki-
degoan sartzeko 14 lanpostu betetzeko aukeraketa
proben deialdia egin du Sustapen Ministerioak. Bi-
de, Ubide eta Portuetako Ingeniari titulua eskatzen
da. **Epea: ekainak 26.**

Informatika

Donostiako Udalean Informatika Zentrorako Infor-
matikari bat (analista-B programatzailea) eta tekni-
kari laguntzaile bat (informatika instalatzailea)
kontratatzeko oposizio lehiaketa.

Epea: ekainak 26

Enplegua sustatzeko teknikaria

Usurbilgo Udalean enpleguko teknikari-lanpostu
bat betetzeko oposizio lehiaketa. Diplomatura eta
euskarako 4. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta be-
harko da. **Epea: uztailak 1**

21, BARIXAKUA

20:00 Alkoholiko Anonimoen bearla irekia

Santo Klarako konbentuan

23, DOMEKIA

18:45 Gelatxo Orkestrarekin dantzaldia

Plazo Handian

28, BARIXAKUA

22:00 Zine Forum-a

Filmea: Donde reside el amor

Hizlaria: Eskarne Larrinaga

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

Antolatzailea: Haizea E. T. Emakunderen laguntzaz

SAN PEDROKO JAIAK

EKAINAK 28, BARIXAKUA

20:00 Kanpoi hotsa eta txapligoak

Egun guztian zehar Sorkunde Ezenarro eta Aintzane Agirrebeña trikitilariok

EKA1NAK 29, ZAPATUA

San Pedro Eguna

11:00 Meza nagusia

Ondoren, Udal Txistufari Bandak eta Haritz Dantzori Toldeak Gipuzkoako Soka Dantza eskainiko dute

Jarraian, Saizar, Sahatzu eta Armuetak eskainitako luntxa

Egun guztian zehar Izer eta Aladier Irikitilariak

13:00 Uren inaugurazioa

14:00 Auzotarren bazkaria

18:00 "Elgoibarko Hiria)001. Saria" txirringulari lasterketa

19:00 Poniak eta zezenak

21:00 Bertso afaria. S. Lizaso, M. Lujanbio eta I. Elorza. Gai jartzailea: U. Elizasu

Ondoren, gaupasa Jose Gardolarekin

Goizaldean, txokolatado

EKAINAK 30, DOMEKIA

8:00 "I. Mota Krosa San Pedro Bailara"

9:30 irteera

Izen ematea: Txusko Moto-Klub (943 74 01 86)

10:30 Meza

14:00 Auzoko jubilatuentzako bazkaria

17:30 Idi demak

Ondoren, telebistoren eto karretilaren zozketa

Egun guztian zehar Felix Astorkia eta Adrian Larrañaga trikitilariak

SAN JUM J,A{111

EKAINAK 22, ZAPATUA

22:00 Agurtazne eta Jon-ekin erromerio

EKAINAK 23, DOMEKIA

14:30 Kanpai hoisa eta txafliagu jaurtiketa

"w.w.w. Txopuzak.klown" antzerkia

20:00 Salbea

20:30 San Juan zuhaitza jarriko da Irikitilariak girotuta

23:00 San Juan sua piztuko da

EKAINAK 24, ASTELEHENA

(San Juan Eguna)

11:00 San Juan meza nagusia

13:00 Efustondo anaiak kikitilarien kalejira

16:00 Haurrenizako jolas parkea: Tobogana, puzgarriak eta piloten etxea

21:30 Herri Kirolak frontoian

Aimar eta Arkaitz harrijasotzaileak eta Ugaitz efa Aratz aizkolariak

EKAINAK 25, MARTITZENA

19:00 Gorriti eta bere animaliak

EGUNEZ

21 Etxeberria

(Rosorio kalean)

22 Yudego

23 Ibañez

24 Bidasolo

25 Etxeberria

(Sana Ana kalean)

26 Fernandez

27 Yudego

GAUEZ

Etxeberria

Ibañez

Ibañez

Bidasolo

Etxeberria

Fernandez

Yudego

FARMAZIAK

IBAÑEZ, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparanka 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

'eguerdiko 2ak arte

OKINDEGIA

23 igandea Idarraga

Elgoibar, Herriko Antzokia

Zapatua: 11-12

ci

"Spiderniao"

Ohnrala: 1

Domeka:

151artili, ni:

"El 1tombre que nunca estuvo alli"

1

11:10

Domeka:

22:1=1

"Star Wars 11"

7apaitta: 11:11-22:11

11

A:-stelellen.t: "11:11"

BARRENek ez du gerta bitzkeen emanaldien
aldaketan erantzukizunik.

KIROLAK

Uda 2002 kirol kanpaina

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazten du Uda 2002 Kirol Kanpainan parte hartzeko izena emateko epea irekita dagoela ekainaren 21era arte. Aurten eskaintzen diren ikastaroak honako hauek dira: 2 urteko umeentzako igeriketa, haur eta helduentzako igeriketa, umeentzako aerobika, gaztetxoentzako steep-a, tenisa, patinajea, eskalada, eta abar. Interesa duenak Olaizaga kiroldegian eman dezake izena.

EKITALDIAK

Diploma banaketa

Elgoibarko Institutuak kurtso bukaerako diploma banaketa ekitaldia egingo du datorren barixakuan, hilaren 28an, Herriko Antzokian. Ekitaldia alaitzeko musika, dantza eta koreografia izango dira eta diplomak pertsonaia ezagunek banatuko dituzte. Aitor Osa Ibanestoko txirrindulariak eta Zuhaitz Gurrutxaga eta Igor Gabilondo Realeko jokalariek hain zuzen ere. Honako hauek daude diplomak jasotzera batxillerreko eta zikloetako ikasleak daude deituak.

IKASTAROAK

Euskara

Udaro bezala, AEK euskaltegiak matrikula zabalik du. Euskalduntze maila guztiak, EGA, Alfabetatze eta irakaskuntzan beharrezkoak diren Hizkuntza Eskakizunak emango dira. Langabetuek eta ikasleek, matrikularen erdia ordainduko dute, Udalaren laguntza izango dutelako. Izena emateko azken eguna, ekainaren 28a izango da. Argibide gehiago behar izanez gero, etorri Plaza Txikian dagoen AEK euskaltegira edo 943 74 13 32 telefonora deitu.



"ALT"

Zuzendaria: Michael Mann.

Antzezleak: Will Smith, Jamie Fox, Jon Voight.

1964 eta 1974. urteen bitartean bizi zituen Cassius Clayk bere garairik onenak. Musulman bihurtu zen eta Muhammad Ali izena jarri zion bere buruari. Ali boxeo munduko mito bihurtu zen. Ring gainean tximeletak moduan intigitu eta erleen ziztada zuela zioen bere boxeatzeko moduz. George Foremanen aurka Afrikan egin zuen konbatea boxeoaren historiako onenetakoa izan zen. Boxeoaz aparte, Vietnamgo gudara joateari uko egin zion, ezkondu eta dibortziatu egin zen.

ZINEA



A

ste honetako erretratu zaharra **Mari Carmen Garatek** ekarri digu. 1943ko ekainaren 3an ateratakoa da. Argazkian agertzen diren poxpolin guztiak Accion Catolicako aspiranteak dira, eta jai egun horretan insigniak jaso zituzten. Foruen Enparantzan emanaldia eskaini zuten, euskal dantzak ederki dantzatuz. Gogoratu ditzagun nortzuk diren dantzari poxpolin hauek:
Goian ezkerretik eskumara: Lucia **Heriz**, **Mari Carmen Garate**, **Julita Gabilondo**,

Ignacita Regil, **Tere Gabilondo**, **Esther Barrutia** eta **Marivi Aizpiri**.


Bigarren ilaran: **Maria Ulacia**, **Cristina Goikoetxea**, **Mari Carmen Gabilondo**, **Maria Arriola (+)**, **Teodora Larreategi (+)**, **Mari Tere Arregi**, **Margarita Gabilondo** eta **Mari Cruz Zuazubizkar**.

Jarrita: **Blanca Beristain**, **Marivi Juaristi**, **Mari Carmen Azkue**, **Mari Tere Elkorotribe (+)**, **Lourdes Alberdi** eta **Cristina Lizundia**.



5. URTEURRENA

*1999ko ekainaren 23an, 27 urte zituela hil zen
AITOR LARREA "LARRU"
"Nahiz eta 5 urte igaro
zure tronboiaren soinua gurekin dago"
Mauxitxako lagunak*



mh:Gesit) **dugun erakustol** 9 1 1 jilta



Bainurako denetik



**Altzariak
estilo guztietan**

**Hidromasajea
adituak**



**Bainurako
osagarrietan
aukera zabala**



**Ateekin ere lan
egiten dugu**

Olaso Poligonoa, 15 - 68 pabiliola
Tel.: 943 74 28 80 943 74 42 23 943 74 46 40

FaXa: 943 74 45 87

20870 ELGOIBAR

Mintxeta

Udal Igerilekua

Astelehetik-Igandera
11:00-20:00



Egun baterako sarrerak

	Pta	DOHAINIK
Sarrera 3 urterarte		
Sarrera <18 urte	500	3,00
Sarrera >18 urte	750	4,50

Denboraldiko bonoa

<18 Urte	5.400	32,50
>18 Urte	6.000	36,00
Jubilatua >60	5.400	32,50
Unibertsitaria	5.600	33,70
Familiarra	10.715	64,40
Ezinduak	4.900	29,50
Kanpotar banakakoa	7.100	42,70
Kanpotar familiarra	11.515	69,20

Kirol Patronatuko Bazkideak dohainik



Elgoibarko Udala



**Denboraldiko bon(u,"li, Olaizaga Kfroldegian
eta Mintxeta Igerilekuan egth daitezke**